

Planetaren Ordua mundu osoan egingo da **20:30etatik 21:30etara**

Kutxabankek bihar bere egoitza korporatiboetako argiak itzaliko ditu

- **Ekintza honekin bat egingo du Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Kordobako bere egoitzetan**

2024ko martxoaren 22an. Kutxabank Talde osoak bere gune korporatibo nagusietako **argiak berriro itzaliko ditu bihar, larunbata martxoaren 23a**, Bilboko Kale Nagusiko egoitzan, Donostiako Garibai kalekoan, Gasteizko Independentziakoan eta Kordobako Gran Capitánekoko egoitzan.

Beraz, beste behin ere WWF (World WildLife Foundation) erakundeak deitutako Planetaren Orduarekin bat egingo du. Ordu hau **20:30etatik 21:30etara** izango da.

Kutxabank finantza-alarrean aitzindaria da jasangarritasun gaietan. Ingurugiroan eta gizartean eragin positiboa duten ekimenekin bat egiten duen erakundea da, karbono isuriak murrizten dituen ekonomiaren aldekoa da, finantza-jasangarriak sustatzeko ahalegina egiten duen bitartean.

Kudeatzen duen baso-masaren adsortzio-gaitasunari esker, bere aztarna korporatiboa neutroa da. Gainera, energia garbiaz bakarrik hornitu zen lehen banketxea izan zen. Banku-sukurtsal guztiak eta lantoki guztiak Iberdrolaren planta fotovoltaiko batetik datorren elektrizitatez soilik hornitzen dira, eta horrek urtean 6 mila tona karbono-dioxido baino gehiago atmosferara isurtzea saihesten du.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.